

ETARRA.—Espainiako jaun txit gorenak, ez dakigu zergatik, baina duela gutitik «etarras» deitzen hasi ziren ETA-koei: Etakoa edo Etakidea esan beharrez.

Baina haien ondotik edo haiei jarraituz, hemengo jaun txit gorenatarik zenbait ere, era horrekin kutsatu dira. Izan ere, hori da normalena abertzale sutsuak erdaraz mintzatzen diren herrian. Horrek erakusten digu zein iturritatik edaten duten. Baina, txarrena, hara hor euskaldunak ere kutsaturik, hainbeste entzutearen buruan.

Zuk pentsa, irakurle, gure harriduraz.

Eta, hori ez da txarrena. Pentsa zazu horientzat zer harridura litzaken orain «etarrik» ez dela zin egingo bagenieke. Harriduraren harriduraz harrika egingo liguteke.

Baina gu, zintzotasunean leial: etarrik ez dela! Zeren Euskal Herrian ez bait da ez herririk, ez txerik Eta izena duenik.